

Ayuntamiento



Udala

Klima aldaketaren aurrean Ekin

Jardunbide Egokien Gida



INGURUMEN, LURRALDE
PLAGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
PLANIFICACION TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA



EZ ZAITEZ GELDIRIK GERATU

(CO₂ isurpenak murrizteko aholku baliagarriak)

Klima aldaketaren gaian aditu diren ikerlari gehienek ohartarazi dutenaren arabera, munduko tenperatura orokorra gehituz joan da azken urteotan.

Gizakiok aurrera eramaten ditugun jardueren ondorioz (esate baterako; industria, motordun ibilgailuen erabilera oinarritutako mugikortasuna eta garraioa, eta etxe nahiz zerbitzuen sektorearen jarduera -berogailuak, aire girotua, etab.-) atmosferara igortzen ditugun berotegi-efektuko gasek, negutegietako plastikozko estalki baten antzera

jokatzen dute atmosferara iristen direnean, Lur planetaren tenperatura igoaz.

Gure eguneroko erabaki eta portaerek atmosferako CO₂a -karbono dioxidoa- (berotegi-efektua sortzen duen gas nagusienetako bat) handitzen dute, baina modu arduratsuan jokatzuz gero eta zailtasunik gabe, **modu errazean, abian jar ditzakegun zenbait jardunbideei esker, atmosferan pilotzen ari den CO₂a gutxitzen lagun dezakegu.** Hori dela eta, eskuartean duzun **gida honek herri mailatik Klima Aldaketaren aurrean erraz jarduteko aholku sorta barneratzen du.**



Aurkibidea

MUGIKORTASUNA	3
HONDAKINAK	5
KONTSUMO OHITURAK	6
ENERGIA	7
URA	10
WEB INTERESGARRIAK	12

MUGIKORTA-SUNA



- **Oinez edo bizikletan muji zaitez.** 5 kilometroz beherako joan-etorriak egiteko, bizikleta da garraibide eraginkorrena. Eguneroko erosketak oinez egin ditzakezu, merkatal gune batera autoz joateko beharrik izan gabe. Horrela, zure auzoko merkataritza jarduera indartzeaz gain, arnasten dugun airearen kalitatea eta zure osasuna hobetzen ere lagunduko duzu.
- **Joan-etorrietan garraio publikoa erabil ezazu.** Zure eguneroko desplazamenduak egin aurretik, erabil dezakezun garraio publikoaren eskaintza zein den azter ezazu, besteak beste; zure intereseko garraibideen konbinazioak zeintzuk diren ezagutu eta garraio publikoaren bidaia-antolatzaileek eskaintzen dituzten beharpenak zeintzuk diren jakiteko (Lurraldebus txartela - <http://www.lurraldebus.net/> -, Euskotreneko 10 bidaietarako edo hilabeterako bonuak - <http://www.euskotren.es/> -, RENFE - <http://www.renfe.es/> -, etab.).
- **Autoa parteka ezazu.** Zurekin lanean ari diren pertsonen bizilekuaren eta ordutegiaren inguruan informa zaitez, eta autoa partekatzeko aukera proposa iezaezu. Autoa partekatzeko ekimenari buruzko informazioa udal web gunean aurkituko duzu (www.irun.org), "Autoa partekatu" izeneko atalean.
- **Zure autoa behar bezala zaindu.** Beharrezkoa ez dela iruditu arren, saia zaitez zure autoa aldizka aztertzeraz eramanen. Aintzat hartu beharrezko oinarritzko puntuak honakoak dira: autoaren doikuntza egitea, pneumatikoen presioa doitztea, olio-maila egiaztatzea, eta airea zein olioaren iragazkien al-daketa egitea.
- **Zure autoaren olio tailer batean alda ezazu.** Horrela, olio dagokion tratamendua egiteko baimendua dagoen gune batera eramango dutela bermatuko duzu.
- **Autoa eraginkorki gidatu ezazu.** Modu oldarkor batean gidatzea ekidin ezazu: autoaren abiadura indarrean dauden arauak diotenera eta unean uneko trafikoaren egoerara egokitu ezazu; baxuak iruditu arren, abiadura mugak errespetatu itzazu; ez ezazu bat-bateko azeleratze eta balaztatzeen bidez gidatu. 2 minutu baino gehiago geldirik egon behar baduzu, motorra itzal ezazu. Ez ezazu autoa gehiegizko kargarekin gidatu. Behar izanez gero, autoko parrilla edo bizikleta-eramateko ken ezazu.

Jardunbide Egokien Gida

- **Kontsumo baxua goa duen autoa aukera ezazu.** Ingurumenaren gaineko eragin murriztena sortzen duten autoak aukera itzazu. Horretarako, honako irizpideak aintzat har itzazu: begira ezazu autoaren kontsumoa zenbatekoa den eta kontsumo txikiena dute ibilgailuen alde egin ezazu; autoaren tamaina zure beharretara egokitzen dela ziurta ezazu; airera igorritako isurpen maila txikia izango dela baieztatu ezazu; autoaren zatien ehuneko altu bat birziklagarri izan dadila eska ezazu, eta azkenik, autoak bio-erregaiak erabiltzeko aukera izatea eska ezazu.

BA AL ZENEKIEN...?

...autobus batek bidaiari bakoitzeko 50 aldiz espazio gutxiago behar izaten du autoarekin alderatuz gero, eta gainera, **autobusak auto batek baino 3 aldiz erregai gutxiago kontsumitzen du.**

...55 bidaiarientzat tokia duen **autobus bakar batekin 40 auto baino gehiago ken genitzake errepidetik** (izan ere, auto bakoitzean bidaiatzen duten batez besteko bidaiari kopurua 1,3 pertsonakoa izaten baita).

...**autoaren ohiko erabilerari lotutako gastuak** -asegurua zenbatekoa, azterketa mekanikoak, erregaia, zergak, aparkalekuak, bidesariak, ...- urteko 2.500 euro baino gehiagora iritsi ohi dira. Aldiz, garraio publikoarekin erlazionatutako urteko kostuak autoaren kostu osoaren heren batera ere ez dira iristen.

...**garraioari lotutako CO₂ igorpenen %80 inguru autoaren erabilerarekin erlazionatuta dago;** autoa partekatuz gero, ingurumen eragin hori garraiatutako bidaiari bakoitzeko nabarmen murrizteko aukera dugu.

...lanera joateko autoa partekatuzko ohitura duen pertsona bakoitzeko batez beste **1.000 litro erregai aurrez daitezke urtero.**

...**behar bezala puztuta dauden pneumatikoe**k kontsumitutako erregai kopurua ehuneko 5 batean aurrezten lagun dezakete.

...motordun ibilgailu baten **motorreko litro bat oliorekin milioi bat litro ur kutsatzeko arriskua egon daiteke.**

...**Klima Aldaketaren aurkako Europar Programak** dioenari jarraiki, eraginkorki gidatuz gero, 2010 urtera bitartean Europa mailan CO₂ gasen isurpenak 50 milioi tonatan murriztera iritsi gitezke. Horrekin batera, kontsumitutako erregai kopurua %15ean gutxituko litzateke.

...**ibilgailu motordun eraginkor baten kontsumoa** eta kirol-ibilgailu edo 4x4ko ibilgailu baten arteko kontsumoaren arteko aldea 10 litrokoa izatera iritsi daiteke egindako 100 kilometroko (kirol-ibilgailu eta 4x4 ibilgailuen kontsumoa askoz ere handiagoa izan ohi da).

...**egindako 100 kilometroko, ibilgailu batek atmosfera 20 kilo CO₂ igortzen ditu.**

HONDAKINAK



- **Sortutako hondakinak birziklatzen lagun ezazu.** Kalean aurkituko dituzun gaikako bilketarako edukiontziez gain, sortutako hondakinak "Gabigune" edo hondakinen bilketarako "puntu garbira" eraman ditzakezu. Birziklatutako produktu bat sortzeak produktua hasieratik ekoizteak baino energia kontsumo gutxiago behar izaten du.
- **Toxikoak izatera irits daitezkeen hondakinak eta edukiontziaik "puntu garbi" edo Garbiguneetara eraman behar dira.** Arasoko Garbigunera eraman daitezkeen hondakinen inguruko informazioa www.txinzer.com web gunean aurkituko duzu.
- **Ez ezazu sortutako zaborra lurrera bota.** Bestela, zure hondakinak kaleak zikindu eta ibaiak, itsasoa edo zelai eta mendiak kutsatzera irits dait.
- **Plastikozko poltsak zabor-poltsa modura berrerabili itzazu.**

BA AL ZENEKIEN...?

...pertsona bakoitzak, batez beste, urteko plastikozko 300 poltsa inguru kontsumitzen ditu.

...plastikozko poltsa xume batek 200 eta 400 urte inguru behar izaten ditu desagertzeko.

...familia bakoitzak urtean tona bat zabor sortzen du gutxi gorabehera, kopuru horretatik 150 kilo inguru metalezko, plastikozko edo Tetra-Brik erako ontzietatik osatuta egonik.

...gure zabor poltsaren erdia edo heren bat bilgarri zein edukiontzietatik osatuta egon ohi da. Bilgarri eta ontzi horiek ez diote normalean inolako hobekuntzarik ekartzen produktuari eta, gehienetan, horien prezioa handitzeko besterik ez dute balio izaten.

...gaikako bilketa zerbitzuari esker ekoizpen ziklora itzultzeko aukera izango luketen lehengai askok beren bizitza zikloa zabortegetan lurperatuta amaitzen dute.

...birziklatzen den beirazko botila bakoitzeko, etxeko telebista 3 orduz piztuta izateko adina energia aurrez daiteke.

...paper birziklatua egiteko, paper zuria fabrikatzeko behar dena baino ehuneko 65 energia gutxiago behar izaten da.

...tona bat paper birziklaturekin 17 zuhaitzen mozketatik eta 20.000 litro ur aurrezteratik irits daitezke.

...plastikozko poltsa bat sortzeko garaian 4 gramo CO₂ isurtzen dira atmosferara. Pertsona bakoitzak urteko 230 plastikozko poltsa erabiltzen ditu gutxi gorabehera, eta horietatik soilik ehuneko 10a birziklatzen da gaur egun.

...munduan segundoko plastikozko 1.500 botila inguru botatzen da zaborretara. Plastikozko botila horiek sortzeko 26 milioi litro petrolio behar izaten dira, hau da; botila kopuru hori sortzeko atmosferara 2.500.000 tona CO₂ igortzen dira.

...plastikoa fabrikatzeko erabiltzen diren produktu kimikoek sortzen dituzten hondakin toxikoak gaur egun munduan aurki daitezkeen 10 produktu kimiko arriskutsuen artean daude.

...zigarro-punta batek 5 urte behar izaten ditu usteltzeko; txikile batek 5 urte; plastikozko poltsa batek 200 eta 400 urteren artean eta botiletako txapek 150 urte inguru.

KONTSUMO OHITURAK



- **Behar bezala presta zaitetz erosketak egitera joan aurretik.** Egin ezazu beharrezko dituzun produktuen zerrenda, eta erosketak egiteko poltsak edo orga etxetik eraman ezazu.
- **Elikagaiak eskuratzeko orduan gutxitu ezazu edukiontzi eta bilgarri kopurua.** Soltean dauden produktuak eros itzazu, bilgarri ugari dituzten produktuak albo batera utziaz (onar itzazu soilik produktuaren garbitasuna nahiz segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren bilgarriak; horrela, sortutako hondakin kopurua murrizten lagunduko duzu).
- **Bertako eta sasoiko produktuak kontsumitu.** Horrela, produktua garraiatzeak sortutako ingurumen inpaktua murriztuko da, zure elikadura anitzagoa eta osoagoa bilakatuko da, eta produktu bakoitzaren bizitza ziklo naturala errespetatuko duzu.
- Kontsumitu itzazu Bidezko Merkataritzatik datozen produktuak. Era honetan, produktu horien jatorriko nekazari eta ekoizleen eskubideak bermatzen lagunduko duzu.
- **Produktuen etiketak eta ekoizleak eskainitako informazioa behar bezala irakurri.** Produktua sortzen kontsumitu den energia, produktuaren osagaiak birziklatzeko aukera duten edo ez, nekazaritza ekologikoaren zigilua duen ala ez, produktuaren osagaien toxikotasun eza, eta abar bezalako aldagaiak maiz etiketetan txertatuta egoten dira.
- **Nekazaritza ekologikoaren zigilua daramaten produktuak bila itzazu.** Nahiz eta oraindik zenbait saltokitan eskuratzetik ez dagoen, gero eta ugariagoak bilakatzen ari dira.
- **Larruak, lurralde arrotzetatik ekarritako animaliak edo jatorri ezezaguna duten koralezko nahiz marfilezko oroigarriak arbuia itzazu,** izan ere, babestutako espezieen heriotzaren sorburu izan daitezke.
- **Behin erabili eta botatzeko produktuak alboratu itzazu.** Eskuratu nahi dituzun produktuak erosi aurretik, kontuan har ezazu horien iraunkortasuna eta baita hondatuz gero duten konpontzeko erraztasun maila ere.
- **Konpon itzazu objektuak.** Puskatzen zaizkizun objektuak zakarretara bota aurretik, saia zaitetz horiek konpontzen edo bestela, eraman itzazu konponketak egiten dituzten denda edo elkarten egoitzetara.

BA AL ZENEKIEN...?

...etiketa ekologikoa daramaten 2.000 produktu baino gehiago daude salgai.

...nekazaritza ekologikoak lurzorua emankortasunari eta ekosistemen nahiz laborantzen ziklo naturala mantentzeko mesede egiten dio. Izan ere, laborantza ekologikoak bioaniztasuna handitu, pestiziden erabilerari lotutako uren kutsadura ekidin eta lurzorua kontserbazioa hobetzen du.

...bertako produktuak, gure eremutik hurbil ekoizten direnez, erosketak egitera joaten garen dendarara iristeko egiten duten ibilbidea laburragoa da. Ondorioz, garraioari lotutako ingurumen inpaktu txikiagoa sortzen dute.

...Bidezko Merkataritzako produktuak ingurumenarekiko begirunea eta tokian tokiko giza taldeen biziraupena bermatzen dute.

ENERGIA



- **Pilarik behar ez duten aparailu elektrikoak erabili.** Sare elektrikora konekta ezin daitezkeen eta funtzionatzeko pilak behar dituzten aparailuak erabiliz gero, behin erabili eta bota egiten diren pilen ordeaz, berriz karga daitezkeen pilak eros itzazu.
- **Funtzionatzen ari ez diren ekipo edo aparailu elektrikoak deskonekta itzazu.** Telefono mugikorra konektatuta egon ez arren, kargatzailea elektrizitate sarera lotuta bada, honek energia kontsumitzen jarraitzen du.
- **Ordenagailua erabiltzen ari ez zarenean itzal ezazu eta denbora tarte txikietan ez erabiltzekotan, pantaila itzali.**
- **Ez utzi etxetresna elektrikoak "stand by" eran.** Harrigarria dirudien arren, stand by eran uzten ditugun tresna elektrikoek (hau da, argitxo gorria piztuta) energia kontsumitzen duten nahiz eta gu horiek erabiltzen ez egon. Onena tresna elektrikoak guztiz itzaltzea izaten da.
- **Etxeko lanak egiteko unean, etenaldietan, etxe tresna elektriko txikiak edo arropa lisatzeko plantxa itzal ezazu.** Plantxaren kasuan, energia kontsumo altuena aparailu hau berotzeko garaian gertatzen da. Ondorioz, komenigarria izaten da arropa kopuru handiak pilatzen joatea eta aldi bakoitzean kopuru mordo bat lisatzea.

Jardunbide Egokien Gida

- **Arropa eta ontzi garbigailuak guztiz beteta daudela erabil itzazu.** Arropa-lehorgailua erabili beharrean, jar ezazu arropa eguzkitan.
- **Platerak edo sukaldeko bestelako ontziak ontzi-garbigailuan sartu aurretik, ur hotzetatik pasa itzazu.**
- **Arropa garbitzeko orduan, ur hotza darabilten programak aukeratu.** Arropa ur beroa erabiltzen denean bezain garbi geratzen da eta gainera, arropak gehiago irauten du. Zentrifugatze garaian, altuenak diren abiadurak erabili; zenbat eta abiadura handiagoa orduan eta kontsumo txikiagoa.
- **Hozkailua egoera onean mantendu.** Hozkailuaren eta izozkailuaren temperatura erregula ezazu fabrikatzailearen aholkuak jarraituz. Aparailu horien atea ireki aurretik, pentsa ezazu ondo zer behar duzun (horrela, atea irekita energia alferrik galtzea ekidingo duzu) eta itxidura hermetikoa egoera onean mantentzen ezazu.
- **Zure sukaldea hobeto erabili.** Suak baino zabalera handiagoa duten ontziak erabili itzazu eta, sukaldeko beroaren probetxu handiagoa lortze aldera, sukaldean aritzeko orduan, jar lezaiezu ontzietan beren tapa. Hobe da presio-eltzeak erabiltzea, energia aurrezten lagunduko baitizute.
- **Ez ezazu labeko atea ireki beharrezkoa ez bada behintzat.** Labea irekitzen duzun bakoitzean, aparailuak berotzeko erabili duen energiaren %20a alferrik gal daiteke.
- **Etxetresna elektrikoak erosterako orduan, ura nahiz energia gutxien kontsumitzen duten merkatuko etxetresna ezberdinen inguruan informa zaituz.**
- **Gelan ez zauden bitartean, argia itzal ezazu.**
- **Bonbilla tradizionalak agortzean, eros itzazu kontsumo baxukoak.** Azken hauek aldiro itzaltzen eta pizten ez egotea komeni da, une horietan kontsumitzen dute eta energia gehien.
- **Berogailua tenperatu egokian mantentzen ezazu (21°C).**
- **Hotzenak diren egongeletako isolamendua mantentze aldera, horietan gortinak ipin itzazu.**
- **Kristal bikoitzeko leihoak ezar itzazu.** Horrela, %20ko energia aurreztera irits zaitetzke.
- **%5-10 bitarteko energia aurreztera irits zaitetzke bero-ihes guneak dauden tokietan isolamendu termikoa lortzeko sistemak jartzten badituzu.**

BA AL ZENEKIEN...?

...Kontsumo baxuko bonbilla batek duen energia kontsumoa eta horri lotutako CO₂ isurpenen balio-kidea, "stand by" eran aurkitzen den DVD aparailu baten kontsumoarekin parekatu daiteke.

...Kontsumo baxuko bonbillek, bonbilla tradizionalak sortzen duen argitasun bera emateko, behar duten energia txikiagoa da (bonbilla tradizionalen ondoan, ia laurden baterainoko energia behar gutxiago hain zuzen ere).

...Bonbilla tradizionalak erabili beharrean, kontsumo baxuko bonbillak instalatuz gero, ezarritako bonbilla bakoitzak irauten duen denboran zehar, atmosferara tona erdi CO₂ isurtzea ekiditen lagun dezakegu.

...Etxeetan kontsumitutako energia kopuru osoaren %60a ur beroaren nahiz berogailuaren erabilerari lotzen zaio. Energia aurrezteko moduetako bat etxe barruko tenperatura gure benetako beharretara egokitzean datza.

...Europa mailan etxeetan egiten den berogailuari lotutako energia gastuak 200 milioi petrolio tona kontsumitzea suposatzen du; hau da, European atmosferara igorritako CO₂ emisioen kuantitate osoaren %14a.

... Erabilitako berogailu sistemaren arabera energia kontsumoa alda daitekeen arren, garrantzitsuena

tenperatura etxeko beharretara egokitzea da; jaisten duzun tenperatura gradu bakoitzeko %7ra-inoko aurrezpena lor dezakegu zure fakturan.

... Etxeko isolamendu termikoa handituz gero, berogailuaren energia beharra erdira gutxitzea iritsi zaitezke.


...Isolamendu termiko egokia izanez gero, galdararen termostatoa arazorik gabe jaitsi daiteke, elektrizitate fakturaren zenbatekoa %30 batean aurreztuz eta logeletako tenperatura mantenduz.

... Etxebizitzetan behar izaten den energia kopuruaren %20a hozkailuari dagokio. Ez ahaztu hozkailua egoera onean mantenduz gero, aparailuaren energia kontsumoa %25era gutxitu daitezkeela.

...Arropa garbigailu batek behar izaten duen energiaren %80a gutxi gorabehera ura berotzeko izan ohi da.

...Sukaldean presio-eltze bat erabiliz gero, energiaren kontsumoa %30era jaitsi daiteke.

...Pila batek desagertzeko 1.000 urte behar izaten ditu eta 600.000 litro ur kutsatzera iritsi daiteke.



URA



- **Gorputza garbitzeko orduan, dutxa bainua baino hobe.**
- **Dutxatzerakoan ur azpian egoten zaren denbora laburtu eta xaboitzen zaren bitartean txorrota itxi ezazu.**
- **Txorrota itxi ezazu hortzak garbitzen dituzun bitartean edo bizarra mozten ari zarenean, bestela hiru litro ur baino gehiago xahutzen ariko zara eta. Presiopean irekitako txorrotatik 3 litro ur xahutzera irits zaitezke.**
- **Txorrota erabiltzen ari ez zaren bitartean itxi ezazu.** “Monomando” erako sistemai esker tantararioa ekiditeaz gain, sistema hauek erabilerrazagoak dira eta ur bero eta hotzaren arteko nahasketa errazten dute, energiaren kontsumoa murriztuz.
- **Kontagailuaz baliatuz, ur-ihesak kontrola ditzakezu.** Egon zaitez 2 edo 3 ordutan ura erabili gabe eta konproba ezazu ea kontagailuak denboraldi horretan zenbatzen jarraitu ote duen.
- **Komuneko zisterna behar duzunean soilik erabil ezazu.** Kontuan izan erabiltzen duzun bakoitzean 6 eta 10 litro ur inguru kontsumitzen direla. Zisternaren barruan urez betetako botila bat edo harri bat ipiniz gero, **zisternak hustutako ur kopurua gutxitzea lortuko duzu.** Horrela, egunean 24 litro ur aurreztuko dituzu.
- **Zisterna aldatu nahi izanez gero, informa zaitez ura aurrezteko ekonomikoenak diren sistemen inguruan** (sakagailu bikoitzeko zisternak, esaterako).
- **Ez bota zigarroak, kotoiak, konpresak, ezta olioia edo kutsatzaileak izan daitezkeen gainerako produktuak ere; komunak ez dira zaborrontziak!** Hoditeria tratatzeaz gain, ur zikinen arazketa oztopatuko duzu bestela. Kontuan izan, aldi berean, trabez libratzeko balio izaten duten zenbait produktuk ere ura kutsa dezaketela.
- **Etxean garbiketak egiteko produktuak erosi aurretik, produktuaren etiketak arretaz irakur itzazu.** **Lehenetsi itzazu** elementu toxiko edo arriskutsuak ez dituzten garbiketako produktuak, horrela ere ingurumena zaintzen ere lagunduko duzu eta.
- **Lixiba neurrian erabili ezazu.** Lixibak ur zikinen araztegien funtzionamendua oztopatzen du. Eskura itzazu, ahal izanez gero, fosforirik gabeko produktu garbigarri ekologikoak.
- **Etxeke objektu edo material ezberdinak garbitzeko orduan, erabili soilik beharrezko garbigarri**

Jardunbide Egokien Gida

kantitatea. Garbigarri gehiago erabiltzeak ez du produktua garbiago geratuko denik bermatzen. So egin iezaiozu garbigarriaren ontzian egoten den etiketari, bertan gomendatzen baita erabili beharreko kantitate zehatza.

- **Etxeko zenbait garbiketa egiteko ozpina edo bikarbonatoa erabil dezakezu.** Era honetan, produktua kimiko garbigarrien kontsumoa murriztuko duzu.
- **Landareen ureztatzea beren beharretara egokitu ezazu.** Hobe da landareak gauean edo eguna argitzen duenean ureztatzea, eta ez bero gehien egiten duen eguneko orduetan (horrela jokatzuz gero, erabilitako ura lurrundu eta, beraz, xahutzea besterik ez duzu lortuko). Gogoratu mahukaren bidez ureztatzea ur gehiago xahutzeko modu bat gehiago dela.
- **Egun euritsuak euri-ura ontzietan jaso eta ondoren beste erabilpen bat emateko aprobetxatu dezakezu.** Euri-urak dituen ezaugarri bereziengatik, edateko uraren aldean, landareentzat onuragarriagoa da.
- **Bertako landareak aukeratu kanpoko espezie arrotzak hautatu beharrean (kanpoko espezieek ur behar handiagoa izaten dute bertako landareekin alderatuz gero).**
- **Zure etxean lorategia baldin baduzu, ureztatzeko erabiltzen duzun uraren lurruntzea ekiditeko tanta-jario bidezko ureztaketa sistema ezar ezazu, pinu azala duen bigungarri moduko oinarri bat ipiniz edo bestela, lurraren gainean hartxintxarra jarritz.**
- **Lorategian ongarri edo intsektizidak erabili aurretik, horrek ingurumenean sor dezakeen eraginaz informatu zaituz.** Gero eta ohikoagoa bihurtzen ari da konposta edo intsektizida ekologikoen erabilera lorezaintza zen nekazaritzan.

BA AL ZENEKIEN...?

...plastikozko botila bat sortzeko 30 litro ur xahutzeaz gain, energia kantitate handia ere kontsumitzen da.

...tantaka ari den txorrotaren batetik urtean 9.000 litro ur galdu daitezke.

...irekita dagoen txorrotaren ur emaria minutuko 10 litrokoa izan daiteke. 3 pertsona bizi diren etxebizitza bateko iturri guztietan ur ekonomizatzeak ipiniko balira, urtean batez beste 95.000 litro ur aurrezteko aukera legoke.

...iturrietan ura aurrezteko gailuak ezarri gero, urteko 25 eta 50 euro bitarteko diru xahuketa ekiditera iritsiko ginateke.

...Komuneko katetik tira egiten duzun bakoitzean 9 litro ur xahutzen dituzu. Zisternaren erabilerak ur kontsumoaren %40a suposatzen du.

...Bainu hartu beharrean dutxatuz gero, 100 litroko baino gehiago aurrez daitezke. Era berean, minutuko 10 eta 20 litro bitartean aurreztera iritsi gaitzke dutxa garaiaren denbora murrizten badugu.

Klima Aldaketari buruzko zure ezagupenak handitu nahi izanez gero, sar zaitetz honako web guneeetan:

Zure karbono aztarna kalkula ezazu: **www.mycarbonfootprint.eu**

Nola kontrola dezakezu Klima Aldaketa?:
<http://ec.europa.eu/environment/climat/campaign>

Klima aldaketaren aurkako ekimena: **www.stopco2euskadi.net**

“Klima Aldaketa” izeneko ingurumen hezkuntzako programa:
<http://climantica.org>

“Alerta CO₂” izeneko jokoak: **www.accionatura.org**

“Crímenes de Lucindo” izeneko klima aldaketari buruzko bideoa:
www.crimenesdelucindo.org

Klima aldaketari buruzko multimedia:
www.eitb.com/infografia-multimedia/cambio-climatico.html

Klima zaintzeko ekimena: **www.ceroco2.org**

www.frenaelcambioclimatico.org/blog

Erlazioa duten bestelako web guneeak:

Energiaren Euskal Erakundea: **www.eve.es**

Eusko Jaurlaritzaren ingurumen ataria: **www.ingurumena.net**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ingurumen ataria:
www.gipuzkoaingurumena.net

“Bizikletaz sarean barna”: **www.gipuzkoabizikletaz.net**

Kalapie hiri txirridularien elkartea: **www.kalapie.org**